

Ibilbidea: Respumoso – Gran Facha edo Bachimañako Erpina (3.005 m) – Wallon

Ibilbide polita eta era askotakoa, tontorrerako igoera entretenigarrikoa.

Respomuso (2.111 m) – Fachako lepoa (2.664 m).- Aterpea inguru idiliko batean dago. Aterpetik Fachako leporainoko igoera nahiko eramangarria da eta nabarmena den eta zedarriekin markatutako xenda batetik doa.

Aterpea utzi eta Hego-Ekialde norabidean GR markak jarraituz ibilaldia hasiko dugu. Zertxobait aurrerago Tebarrayko lepora doan GR bidea utzi eta Campo Planoko lakurantz joango gara.

Paisaia ikusgarria da, Tebarray, Piedrafita, Llena de Cantal, Punta Zarra, Gran Facha, Cambales eta Cristal mendiek Campo Plano sakan ederra ixten dute.

Zidorrak lakua eskuinetik zehartu eta Fachako lakuetatik jaisten den erreka haitzartean gora doa. Hasieran belardietatik goaz baina malda tentetzen doan heinean harriak dira nagusi eta aurrera egitea nekosoagoa da. Aurreneko igoera honen ondoren Fachako lakuetara (2.522 m) iritsiko gara.

Ekialdean Fachako lepoa ikusten da. Zedarriz markatutako bideak lakuak eskuinetik zeharkatzen ditu eta aldapa handiko hartxingan gora Fachako leporaino (2.664 m) doa. Campo Planoko lakutik leporainoko bidean uda garaian ere elurtegiak topa ditzakegu. Ekialdera zein Mendebaldera bista paregabeak daude. Atsedena hartu eta indarrak berritzeko leku egokia.

Fachako lepoa (2.664 m) – Gran Facha (3.005 m) – Fachako lepoa.- Gran Facharen harrizko ertz zabal eta ikusgarria gure eskuinean altxatzen da. Igoerako bidea zedarriekin markatutako eta tarte nabarmenak dituen zidor batetik doa. Toki batzuetan alde batera eta bestera dauden zedarrien ugaritasunak nahastu egin gaituzke, baina erne ibili behar da eta zedarriak jarraitu. Gutxika gutxika altuera hartzen goaz. Toki batzuetan gora joateko eskuen laguntza beharko dugu, zedarriak galdu ez baditugu pasoak errazak eta arrisku gutxikoak dira. Beste batzuei zauritu ditzaketen harriak ez botatzeko kontuz ibili behar da.

Aurre-tontorrera iritsiko gara. Tontor nagusira iristeko bretxa txiki bat pasatu eta heldu leku onak dituen arrisku gutxiko tximini bat igo behar dugu. Lourdesko Amaren irudia eta buzoi txiki bat osatzen dute tontor honen erpina. Gure aurrean mendiz osatutako sekulako itsasoa irekitzen da.

Tontorretik dauden bistak ikusgarriak dira, Ekialdera Vignemale eta Perdido mendiak garbi ikusten dira. Hegoaldera, hor bertan, Infiernos mendien Iparraldea bere glaziar txikia eta guzti. Meldebaldera, Midi d'Ossau atzean, eta asko gertuago Balaitous eta Frondellas mendiaren gailurria.

Lepora jaisteko igoeran erabilitako bide bera erabiliko dugu, bidean egon daitezken pertsonak ez zauritzeko berriro arreta handiz ibiliko gara.

Fachako lepoa (2.664 m) – Wallongo aterpea (1.865 m).- Lepoan Frantzian barneratu eta Marcadauko sakonera jaisten den zidor nabarmena jarraituko dugu. Lacs de la Fache lakuen ondotik pasatuko gara. Altuera galtzen goazen heinean, lur mota aldatzen doa, harkaitzak eta egon daitezken elurtegiak tokia belarrari uzten diote. Marcadauko lepotik jaisten den errekatxora iritsiko gara, zubia pasatu eta gertu dagoen aterperantz joango gara. Pla de la Gole izeneko parajea dago. Wallongo aterpea (1.865 m).

Recorrido: Respumoso - Gran Facha o Cúspide de Bachimaña (3.005 m) – Wallon

Bonito y muy variado recorrido, con una ascensión entretenida a la cima.

Respomuso (2.111 m) – Collado de la Facha (2.664 m).- El refugio se halla situado en un entorno idílico. La subida desde el refugio hasta el collado de la Facha resulta bastante llevadera y se realiza por una senda bien definida y marcada por hitos.

Dejamos el refugio e iniciamos el recorrido siguiendo las marcas GR, dirección Sureste. Un poco más adelante dejamos la GR que se dirige al collado de Tebarray y continuamos hacia el Ibón de Campo Plano.

El paisaje es espectacular, las cimas de Tebarray, Piedrafita, Llena de Cantal, Punta Zarra, Gran Facha, Cambales y Pico Cristal cierran el bonito barranco de Campo Plano.

El sendero bordea el ibón por la derecha y asciende remontando el torrente que baja de los Ibones de la Facha. Al comienzo caminamos por pastizal pero a medida que aumenta la pendiente la pedriza se hace dueña del terreno y el avance resulta algo incomodo. Tras esta primera subida llegamos a los Ibones de la Facha (2.522 m).

Al Este se ve el collado de la Facha. El camino marcado con hitos, bordea los ibones por la derecha y afronta la pedriza de fuerte pendiente hasta alcanzar el collado de la Facha (2.664 m). En la ascensión desde el ibón de Campo Plano hasta el collado, aun en periodo estival, podemos encontrarnos con algunos neveros. Vistas excepcionales tanto hacia el Este como hacia el Oeste. Un buen lugar para descansar y reponer fuerzas.

Collado de la Facha (2.664 m) – Gran Facha (3.005 m) – Collado de la Facha.- A nuestra derecha se alza la impresionante y ancha arista rocosa Norte de la Gran Facha. La ruta de ascenso transcurre por trazos de senda claramente pisada y marcada con hitos. Hay momentos que la abundancia de hitos hacia uno u otro lado pueden desorientar, pero conviene estar atentos y no perder los hitos. Poco a poco vamos ganando altura. En algunos sitios tenemos que ayudarnos con las manos para realizar pequeñas trepadas, si no hemos perdido los hitos los pasos son poco expuestos y fáciles. Hay que tener precaución para no desprender piedras que puedan herir a terceros.

Se llega a una antecima. Para acceder a la cima principal, tenemos que superar una pequeña brecha y trepar por una chimenea con muy buenos agarres y poco expuesta. Una imagen de la Virgen de Lourdes y un pequeño buzón conforman el vértice de este pico. Gran Facha (3.005 m). Un impresionante mar de montañas se abre ante nosotros.

Las vistas desde la cima son espectaculares, se distinguen claramente el Vignemale y el Perdido al Este. Al Sur, ahí mismo, la cara norte de los Infiernos con su pequeño glaciar. Hacia el Oeste, al fondo, el Midi d'Osseau, y bastante más cerca el Balaitous y todo la crestería de los picos de Frondellas.

El descenso al collado lo realizamos por la misma ruta utilizada en la ascensión, prestando mucha atención en no desprender piedras que puedan herir a personas que puedan estar en la ruta.

Collado de la Facha (2.664 m) – Refugio de Wallon (1.865 m).- En el collado continuamos por el sendero bien definido que se adentra en territorio francés y desciende al barranco de Marcadau. Pasamos junto a los Lacs de la Fache. Según vamos perdiendo altura el tipo de terreno va variando, las rocas y los posibles neveros van cediendo paso a la hierba. Llegamos al riachuelo que baja del Puerto de Marcadau, cruzamos el puente y continuamos hacia el cercano refugio. Se encuentra en el paraje llamado Pla de la Gole. Refugio de Wallon (1.865 m).